



EUSKAL FORUAK ESPAINIAKO GORTEETAN

Oraintxe, uztailaren egun hauentantxe, betetzen da guztiok gogoan dugun Foru-deuseztapenaren lehenengo Mendehurrena, 1876-1976.

1876ko uztail hartan sutu zen Espainiako parlamentuan euskal Foruekiko eztabaida, hain zuzen XIX. mendean jasan dugun eztabaidarik bortitzena. Hilaren 12tik 19raino luzatu zen sokatira dialektiko hura. Uztailaren 21an eman zen, azkenik, Lege berria: Euskal Herriak ez zuen hartaz gero inolatan Forurik izanen.

ESPAINIAKO KONSTITUZIOAK

Hemeritzigarren mendean —Cánovas-ek berea sortu arte— Konstituzioak dira Espainiako politikan alderdi politikoen eta liberalismo osoaren burruka-leku zaratatsuenak. Ideologia liberalaren (eta beronen taldeen) zerbitzutan behin eta berriz berriztzen dira; batzuetan, adabakiz eta bestetan osorik.

1876rainokoa hamaika Konstituzio ezagutzen ditu Espainiak, Konstituzio berri eta berrituak gogoan har bagenitza behintzat. Baionako Estatuarekin hasi (1808) eta Cádiz-tik igaroz (1812), azkenekoraino etengabe egina eta desegina darama Liberalismoak: 1808, 1812, 1820, 1834, 1845, 1856, 1857, 1869, 1873, 1876.

Konstituziogintza bakoitzak berez esan nahi du Estatuaren birmoldaketa eta, maiz, bai eta Estatuaren azpiko ideologiaren aldakuntza eta trukaketa ere. Cádiz-ko Gorteen aurretik, 1809an Espainia osora inkesta bat zuzendu zen eta, erantzunen arabera, ba dakigu Espainiako Erresumari askok eta askok Konstituzio moldaketa berri bat eman nahi ziola. Kondaira une hartako buruhauste larri bat zen hura.

Inkesta horretan bertan agertzen zaigu eskualdeetako Konstituzio berezien (horixe dira hain zuzen Foruak) arazoa. Beraz, Monarkiari Konstituzioa ematean, zer egingo da euskal Foruekin? Eskualde honetako Deretxo Publikoari eutsi egingo ote zaio, ala dena berdintasun batetara ekarriko da? Ez dezagun ahantz, Errejimen Zaharra aldatzean, berdintasun liberalaren alde jokatu nahi dela.

Berdintasun gogo horrek bi oztopo aurkitzen ditu berehala: gizarteko Estamenduak, eta Estatu-ko Konstituzio berdintasunik eza. Estamenduak, gizabanakoaren eskubideak zapaltzen dituzte, premiazkoa den libertate-lehiaketari trabak ezarriaz. Elizari eta Nobleziari bereziki, bere ekonomi-, gizarte- eta legezko abantailak kendu egin behar

zaizkie, gizarte klasista bat sor dadin. Hori da Liberalismoaren tesia. Eñakuntza horren ondoren, eskualdeen aparteko Foruak geratzen dira. Zer egin horiekin?.

1809ko inkestak jasotzen dituen eritzien arabera, eskualdeetako Foruek ez dute tokirik nazio batu barnean. Nazioaren batasunak, hala diote, Konstituzio bakarra eskatzen du; aparteko txoko berezirik jasaten ez duen batasuna da hori. Irakurtzekoak dira Badajoz-ko apez batek zerabiltzan arrazoinak: “La Nación española, aunque es un vasto reino (oraindik Amerika ez da galdua) compuesto de diversas provincias, puede y debe gobernarse por unas leyes generales y uniformes, porque en todas ellas se habla una misma lengua, se profesa una misma religión y tiene una sola cabeza suprema”.

XIX. mendeko Monarkiaren barnean, forudun eskualde bakarra Euskal Herria da, Kataluniak mende bat lehenago galdu baitzuen bere konstituzio berezia: Euskal Herriari “provincias exentas” deitzen zitzaion, edozein mapa historikotan ikus daitekeen bezala. Beraz, Foruak ezeztatu beharra aipatzean, zuzen-zuzen Euskal Herriko Lege Zaharra tirokatu nahi zen Cádiz-tik. Espainiako lehenengo Konstituzioak, 1812koak hategia, ez zuen baztertu berdintasun modu honen gogoia. Bai progresismoa (Liberalismoaren ezkerria), bai moderantismoa (eskuina), Lege horri leial izango zaizkio Foruekiko arazoan. Unitarismoaren tesia irteten da garaile.

1812ko Konstituzioa gerratekoa izan zen. 1834eko “Estatuto Real”a ere karlistadaren barnean jaiotzen da, baina Harmada baten eta aginte moldatu baten eskutik dator hau. Estatuak horren deira, eskaldunal botxaturik daude Madrilera deputatu ordezkariak bidaltzera, hain zuzen Euskal Herriari Legeak handixe eman nahi zaizkiolako. Hauteskundeen legeak han egiten dira orain, eta elektioetatik sortutako ordezkariak harako dira. Espainiako Gorte berriek eman nahi dizkiote orain Euskal Herriari Legeak. Gorte haiek izena dute bakarrik zaharra, gainerako izaera eta egitekoetan erabat dira berriak, burgesiaren zerbitzurako asmatuak eta Monarkia Zaharren kontra sortuak.

Honela, karlistadaren aitzakiarekin nahiz aitzakiarik gabe, euskal Batzarreak eta Nafarroako Gorteak enbarazo bat dira, Foru osoa behaztopo diren bezalaxe. Herriaren burugaintasunaren eta soberaniaren izenean sortzen dira Cádiz-ko Gorteak, Erregeri ordura arteko zenbait eskubide kenduz. Baina hemengo instituzioen soberania eta iturri jatorria ukatu eta itoerazi egiten dute.

Geure herriaren soberaniatik genuen Forua, inongo herriren (burgesiaren?) asmoetara bortxatuko da. Konstituzio desnazionaldu bat ezarriko zaigu.

EUSKAL ARAZOA MADRILEN

Beraz, 1839 tik aurrera, gure herritasunaren instituzio-bideak Madrileko Gorte-Gobernuetan erabakiko dira. Hori da Espainiako Liberalismoaren

EUSKAL HERRIAN



S. Antolineko Ermita (Abadiano).
Espartero eta Maroto 1839.ean hemen bildu ziren.

ideologiarekin bat datorrena.

Nola ulertuko da, ostera, gure nortasun hori? Edota inola ulertuko ote da, gero? Gure Batzareek berez zekiten zer zen gure herria eta beronen historia, baina Madrilen? Horra, Espainiako Gortestako gure betiko drama...

1812an emandako norabideei lehenengo karlistadaren ondoren jarraikiko zaie Espainia. Gortetako euskal Foruen eztabaidak une ezagun batzuk izan zituen XIX. mendean: 1839-40, 1864 eta 1876. Bergarako Gomenioa legeataratzea eskatzen die Gobernuak Gorteei. Bergarakoa hitzarmen bat izan zen... Zer pentsa lezakete hortaz Madrileko Gortee? Garrantzizkoa zen une hura: orduantxe erabaki behar zen, lehenengo aldiz, Euskal Herriatik kanpora, gure Foruak zer ziren, zer izan zitezkeen, nork nori agintzen zion, nor noren menpeko zen.

Bergarakotik hamabost egun barru baino lehen aurkeztu zuen Gobernuak bere Legegaia Gortean (irailaren 11an). Hilaren 25erako emanda zuen Batzordeak iritzia (dictamen), eta urriaren lehenengo egunetan ekin zitzaion eztabaidari. Gogora ditzagun orduko zenbait hizlari: Mendizábal andaluz, A. Argüelles, Madoz, Olozaga, Kortazar, etab. Urriaren 3-7etako eztabaida haren fruitua oso ezaguna da: "Se confirman los Fueros de las Provincias Vascongadas y de Navarra, sin perjuicio de la unidad Constitucional de la Monarquía" dio 1839ko urriaren 25eko Legeak.

Argi dago nola ulertu den euskal Foruaren jatorrizko zuzterra: Madrilen, Gorteen erabakiz (elkarrizketa eta hitzarmenak ahantziz) gonfirma litezke, dirudienez, euskal Foruak...(Hor dago, estalki xuriaren azpitik, ganibeta). Hemengo Batzarreek ez dute deus esatekorik. Deretxoaren iturria han ezarri da, guretik kanpo. "Sin perjuicio de..." horrek zein interpretapen izan ote dezake Liberalismoan? Nork erabakiko du zer den Monarkiaren batasun jatorra?.

1839an tinkatzen dira geroko Gorte-eztabaidetarako zimentarriak, eta geroztik posible da Foruen kontrako zernahi erabakitzea. 1864ean piztuko

da bigarren eztabaida bat Espainiako Gortean. Afrikako gerratea da tarteko, eta erantzukizun berriak ezarri nahi zaizkio Euskal Herriari, bai soldadutan, bai diru-zergatan. Gerora ere Foruen etsai porrokatu izango den Sánchez Silva-k emango ditu lanak. Ba da oraingoan berezitasun bat eztabaidan: politik eztabaidaraino iristen da Llorente-k euskal historiari emandako interpretapena. Egaña eta Barroeta dira euskal tradizioren eutsi nahi diotenak. Barroeta da batez ere historiari helduko diona. Zergak eta soldauskarako deien arazoa dabil tartean, baina barnerago sartu nahi ezpata Sánchez Silva-k, eta ongi ulertu zioten hori euskal deputatuek orduan. 1876ko eztabaidaren aurrerapen bat gertatu zen 1864ekoa.


1876ko EZTABAIDA

Es da ezezaguna gertatzen 1876an eztabaidari hasera ematen diona: berriro ere Sánchez Silva da. Apirilaren 4ean eskatzen dizkio kontuak Gobernuari. Senatuan hasten da dena, eta "combatiendo los privilegios de las Provincias Vascongadas" lanegin nahi du Espainiaren alde, zuzentasunik gabeko gerla bat egin baitiote Espainiari. Hilabete eskas da oraindik Don Karlos-ek Arnegi-ko muga pasa duela. Gerrateondoko konponketak egin beharra dago, eta Espainiako Gortek dira hori egiteko leku aproposa.

Ekainaren 22ra arte luzatzen dira Senatuan arazoaren joan etorriak. Maiatzaren bigarren hamabostekoan aurkezten du Cánovas del Castillo-ren Gobernuak bere Legegaia. Espainiari Konstituzio berria eman dion gizon bera arduratzen da Euskal Herriaren nortasun politikoaz: "Los últimos acontecimientos, que por sí solos bastaran, como los de 1833 a 1839, para plantear en toda su integridad la cuestión hoy sometida a la resolución definitiva de las Cortes, no permiten consentir por más tiempo que en este punto importante se halle rota y desconocida la unidad constitucional". Konstituzio-batasunaren eztabaida, oso argi dago Gobernuarentzat: batasun hori, pentsatzen da, ez da hitzarmen eta elkarrizketa baten menpe jarriko, Madrileko Konstituzioaren esanetara baizik.

Euskal Herria bentzutua izan da, eta garaileak ezarri ohi dizkio gerraondoko baldintzak. Gobernuaren Legegaia zazpi artikulua ditu, eta soldauska, zergak eta Gobernuarekiko harreman guztiak moldatu nahi ditu. Honek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoari entzun egin beharko die, Foruen Deretxoa aldatu aurretik; baina, egin, nahi duena egin dezake, gero eginkizun honetarako diktatura bat sortzen da, seigarren eta zazpigarren artikuluen arabera.

Ba dirudi, gainera, Cánovas-en Konstituzioak errejimenaren ezkerrentzat (eta errepublikazaleentzat ere) izan zuen begiramena galdu egin duela euskal Foruei dagokien honetan. Sarreran bestelakorik baldin badio ere, laugarren eta bosgarren artikuluetan bi trataera ezberdin agertzen dira garaile eta bentzutuentzat. Hori da egia.



Zergatik berezketa hori

bestetik liberalak. Monarkia birreraiki berriak bere "klientela" segurtatu egin behar du euskal gizartean. Azken gerratean legezko Erregeren alde parte hartu dutenen semeak ez dira soldaduskara bortxatuak izango.

Karlisten aurka ahalegindu diren herri eta hiriei hamar urtetako zergak barka lekizkieke; berdin, karlistek persegitu dituztenei, edota beren etxeetatik ihes egin behar izan duten liberalak. Gobernu irabazlearen aldekoak ez dira izanen hiritar arruntak, hiritar pribilejiatu batzu baizik. Gainerako herria, berriz, ordura arte ezagutu ez duen zamaz (Penintsularako soldaduak bidaliz eta Madrili zergak ordainduz) zigortuko da. Hori da Gobernuaren asmoa.

Sánchez Silva ez zen bat etorri Gobernuaren Legegaiarekin, ez eta Batzordearen irizpideekin. Zerbait gogorragorik behar zuen berak. Ekainaren 19an eman zitzaion hasera Senatuko eztabaidari. Egun osoa bete zuen. Azkenik, bototara jarrita, Sánchez Silva-ren proposamena baztertua izan zen: 111 boz kontra, 24 alde. Biharamunean, Batzordearen Diktamenari heldu zitzaion. Agirre Miramon izan zen Legegaiaren kontra luzeenik mintzatu zena. Ekainaren 22an bukatu zen Senatuko lana: bederatzita lagunek eman zuten beren boza kontra, baina 96 ziren aldekoak. Prest zegoen, beraz, Deputatuen Ganbararako Legegaia.

Zergatik berezketa hori? Ba dirudi Euskal Herria erdibitu egin nahi dela: alde batetik karlistak, Egiatzko gudua Deputatuen artean izanen zen. Testu inguru hartan, Euskal Herriko Diputazioei egindako kontsultak zeregin haundirik ez zuten benetan. Uztailaren zazpirako Batzordearen Diktamena emanik da Deputatuentzat; hurrengo egunean aurkezten du González Fiori-k bere aparteko iritzia. Uztailaren 12an ekiten zaio eztabaidari; 13an, 14ean, 17an, 18an eta 19an burutzen da. Legegaia, Legetzat gonfirmatua geratzen da hilaren 21ean.

Deputatuen Ganbarako hau izan zen XIX. mendean euskal Foruei egin zitzaizkien defentsarik bortitzena, ausartena, jantziena. Xehetasunak beste nonbaiteko utzi beharko ditugu; baina bidezkoa da gure Foruen defentsarik argiena egin zuten gizonen izenak gogoratzea: Agirre Miramon-ek Senatuan, Mateo Benigno Moraza-ko Deputatuen artea.

Benetan sonatua izan zen ekinaldi hura. Eztabaidaren aurretik, Euskal Herriko prentsa ezezik Madrilekoa ere sartu zen. Batzuek Gobernuaren alde, besteak kontra, Madrilen bertan ere ez zen faltatu orduan Foruen aldekorik. Baina saioa alde aurretik galduta zegoen, gerratea galdu zenetik bertatik. Benetan, Euskal Herria histori aro berri batean murgiltzera zihoan hartaz gero.

Joseba INTXAUSTI

FORUAK: KARLISTAK ETA LIBERALAK

Ehun urte dira aurtan, gure Foruak deuseztuak izan zirela. Euskaldunontzat benetan Urteburu gogoangarria. Ehun urtebetetze hori dela eta badi-rudi betiko pseudoetsai politikoen artean aintzinako amorru eta ikusiezinak berpiztu direla.

Euskal gizarte eskubideen oinharri ditugun Foruak azter ditzagun bere azkenaldira. Honela Foruen erahilketa izan zenaren ondoren politikoa ikasiko dugu behinik behin; gaur eta bihar politika bide berri urratzaileentzat irakaspen nahiko jakingarri eta aphantzi ezina.

Deuseztapenaren inguru historikoa estudiatzera-koari material ugari arki dezake kondairagilek.

Baina Foruen arazoa oraindik ere gure baitan bizirik dugularik, politik gaiari lot gakizkion historikoa geroari utziaz. Batak bezain besteak Histori ala Politika egileek objetibotasunez erabili beharko dituzte funtsezko datuak.

Eztabaida beroa sortu ohi da "endogenista" eta "exogenista" eskolen artean gai honi buruz. Euskal Foralitatearen amaiera diskusiogai bezala hartzea, besterik gabe, nor bere printzipioen deklarazioa dateke gaur. Gizarte inobilistazaleen alde arrazoi apartak: Herriz kanpotik jokatu zuten gure kontrako indarrak (inbasioa, militar okupazioa, Foruen kontra Agintarien erabakia, Estatuaren laguntzaz antiformal propaganda, Euskal populazio gehiengoaren protesta...) "Endogenistek" berriz behin eta berriro errepikatzea atsegin zaien interpretazioarekin susmo txarrezko sospetxak ematen dizkigute. Hona hemen lau haizeetara aireatutako "endogenisten" eritzia: "Garai hartan Euskal Gizarte barnean zebiltzen kontradikzioek erahil zituzten gure Foruak. Merezia izan zuen halebria, Herriak".